

Guggenheim Bilbao Museoak

2012ko maiatzaren 15ean aurkeztuko du

DAVID HOCKNEY

IKUSPEGI ZABALAGO BAT



Babeslea



15 GUGGENHEIM
BILBAO 1997-2012

Oraingo honetan ere, atsegin handiz zuzentzen natzaie artezaileei Guggenheim Bilbao Museoko erakusketa bikain bat aurkezteko. Nazioarteko proiektu handia da, eta, hirian izango denez, Iberdrola hari batu zaio. David Hockney-ren paisaia ugari ikusgai daude, alegia, Erresuma Batuko egun jardunean ari den pintore garrantzitsuentzat jotzen duten artistarenak.

“Nagiek inspiraziorik ez” artista horren lema gogokoenetako bat da. Izan ere, Hockney-k mende erdi baino gehiago darama artelanak egiten eta etengabe bere artea berritzen; gainera, bilakaera horrek joera nagusietatik kanpo utzi du.

Ausardia, bizitasuna, originaltasuna eta konpromisoa egile horren bereizgarri batzuk dira: iraganeko maisu handiak miresten ditu eta begirunea die; baina, era berean, teknologia berriek jakin-mina pizten diote eta horiek aztertzeraz murgiltzen da. Aurreko hamarkadetan faxak eta fotokopiagailuak eskainitako aukera artistiko bitxiak ikertu zituen; gaur egun iPad bidez marrazkiak egiten ditu eta kamera ugariz aldi berean paisaia bat grabatzen du pantaila askotan erakusteko. Horrelako lanak tamaina handiko olio-pinturekin batera ikusgai daude erakusketan.

Erakusgai dauden paisaietako asko genero hura pintatzeko tradiziozko tekniken arabera egindakoak dira, hots, bizitik eta gerora estudioan landutakoak. Nolanahi ere, Hockney-k gainera teknologiaz baliatzen da paisaiok sortzeko, bai eta aise bizitik egiten dituen zirriborroak marrazteko. 2007an naturan bertan egindako lanik handiena margotzea erabaki zuen, eta orduan ere kamerak erabili zituen, pintatu bitartean, konposizioaren ikuspegi orokor bat eduki ahal izateko; baliabide horretara ere gerora jo zuen, hainbat mihisez osatutako pintura erraldoiak egiteko.

Erakusketaz bisitari askok gozatuko dutelakoan gaude. Iberdrolaren gizarte-ekintza jardueretako bat da erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoari babesa ematea; bada, munduko artegune gailenetako bat bihurtu da, artezale orotarako erreferentzia.

Ignacio S. Galán
Iberdrolako Presidentea

David Hockney: ikuspegi zabalago bat

- Irekiera- eta itxiera-datak: 2012ko maiatzak 15–irailak 30
- Komisarioak: Edith Devaney, Londresko Royal Academy of Arts-eko Arte Garaikide Proiektuen Arte Arduraduna, eta Marco Livingstone, komisario independentea
- Babeslea: Iberdrola

David Hockney: ikuspegi zabalago bat erakusketa Londresko Royal Academy of Arts-ek antolatu du Guggenheim Bilbao Museoaren eta Koloniako Museum Ludwig-ekin lankidetzan. Hockney egun jardunean dagoen britainiar pintore gailentzat dute, eta erakusketa honetan haren ibilbidean paisaiak duen leku esanguratsua aztertzen da; gaurdaino gai horri eskainitako erakusketarik handiena da Espainian.

Iberdrolaren babesari esker, Museoko bigarren solairuan 150 bat lan ikusgai daude: olio-pinturak, ikatz-ziriz eta iPad bidez egindako marrazkiak, zirriborroen koadernoak eta bideo digitalak, gehienak azken zortzi urteetan sortutakoak. Nolanahi ere, 2004tik aurrera egindako jaioterri Yorkshire-ko paisaiaren margolan biziak dira erakusketaren muina. Erakusketak margolariaren munduan murgilduko gaitu, eta aditzera emango digu askotako teknikez baliatuta artistak natura bizitasunez jasotzeko gaitasuna duela eta gaztaroko paisaiari atxikitzen zaiola.

Ibilbide osoan irudikatu du natura Hockney-k, are beste gai batzuk nagusi zituenean ere bai. Agerikoa da erakusketan; izan ere, lan jakin batzuk aukeratu dira horixe azaltzeko eta azkenaldian egindako paisaien testuingurua emateko. Lanok tarte handia hartzen dute, Bradford-en ikasle zenetik, 1956tik, 1998ra, eta, garai ezberdinetako paisaia horiek, espazioa irudikatzeko ardura eta natura islatzeko koloreen erabilera eta perspektibaren manipulazioa aspaldiko gaiak direla adierazten dute.

Lan horiek petalo itxurako Frank Gehry-ren areto batean daude. Nazioarteko bilduma publiko eta pribatuetaoak dira, eta 1950etik aurrera egindakoak. Horien artean daude *Italiara ihesi – Suitzako paisaia* (*Flight into Italy – Swiss Landscape*, 1962), Alpeetako gailurren irudikapen estilizatua, eta 1980ko hamarkadako argazki-collage ezagun bi, *Arroila Handia, iparraldera begira, 1982ko iraila* (*Grand Canyon Looking North, Sept. 1982*) eta *Pearblossom autobidea, 1986ko apirilaren 11–18, 1 zk.* (*Pearblossom Highway, 11–18 April 1986 #1*); azken horretan errepide batek ikuslea gidatzen du margoan barrena, eta Hockney-k ikuspegiarekin eta Kubismoaren espazioaren irudikapenarekin esperimentatu duela erakusten digu.

Horma makur horietan ere badaude beste lan batzuk, Arroila Handiko pintura bi, 1998an egindakoak: *Arroila Handia hurbiletik* (*A Closer Grand Canyon*, 1998) ikusgarria, zazpi metro luze duena; eta urte bereko *Garrowby Hill*, estudioan, oroitzapenetatik abiatuta sortutakoa. Azken hori 1997an Yorkshire-ra itzuli ondoren egin zuen. Bertara joan zen lagun eta babesle Jonathan Silver hiltorian baitzegoen; egunero gidatzen zuen amaren etxetik lagunarenera, Wetherby herrian, eta bidean landa inguruko paisaia zeharkatzen zuen. Horrela lotu zitzaion berriro gaztaroko paisaiari eta piztu zitzaion harengako interesa eta txera.

Azkenaldiko paisaiak

Museoko areto klasikoetan dago erakusketaren hasiera. Bertan sei lan sorta daude, 2005 eta 2009 artean egindakoak. Lanok aditzera ematen dutenez, paisaiak aukera asko eskaintzen ditu eta jakin-minez eta grinaz ekiten dio Hockney-k horiek margotzeari, baliabide teknologiko eta bisualen laguntzaz, bizitik zein buruz edota irudimenez. Artistak berak esan duenez “psikologikoki ikusten dugu”, gure oroimenek iragazten dute ikusten duguna.

Lehengo aretoan tamaina txikiko olio-pinturak eta urmargoak daude, bizitik margotutakoak 2004 eta 2005 artean. Horrelako lanak egiten hasi zen 2001ean, *Secret Knowledge: Rediscovering the Lost Techniques of the Old Masters* liburua argitaratu ostean; izan ere, liburu horretan azaltzen du kamerak edo lenteek XV. mendetik pinturen konposizioan eragin dutela; hori dela eta, lan horiek egiteko kameraren eragina baztertu zuen eta landa ingurunera irten zen ikusten zuena zuzenean margotzeko. Garai horretan pintura asko eta asko egin zituen Yorkshire-ko paisaiarenak, hala nola, *Bidea garitzan zehar, uztaila* (*Path Through Wheat Field July*, 2005), *Woldgate-ko ikuspegia, 2005eko uztailaren 27a* (*Woldgate, 27 July 2005*) eta *Fridaythorpe harana, 2005eko abuztua* (*Fridaythorpe Valley, August 2005*).

Olio-pintura eta urmargo horiekin batera, Yorkshire East-eko mendi-bidexka bat irudikatzen duten lanak daude. Artistak bide horri “tunel” esaten dio, eta azkenaldiko paisaietan maiz agertzen den motiboa da; gainera, hasierako lan batzuetan ere antzeko irudi bat erabili zuen.

Artistak haurtzaroko eta gaztaroko paisaiarekin lotura emozionala ezarri zuela ere nabaria da *Woldgate basoa* (*The Woldgate Woods*) eta *Thixendale-ko zuhaitzak* (*Thixendale Trees*) lan sortetan. 2006 eta 2008 artean egindako bi multzo horiek Museoko bigarren areto klasikoan daude, eta aditzera ematen digute Hockney-k sailak egitean diziplina handiz lan egiten duela; izan ere, argia eta paisaia urtarotik urtarora nola aldatzen den zehatz-mehatz jasotzen dute.

Hirugarren eta azken areto klasikoan, naturaren zikloa, osorik, irudikatzen duten lanak daude. Lanok bizitik zein buruz, alegia, estudioan zela oroimenetatik abiatuta eta irudimena erabiliz, egin zituen Hockneyk. *Elorri zuria loratzen* (*Hawthorn Blossom*) lan multzoan udaberriaren helduera iragartzen du, elorri zuriaren loratzea erakusgarritzat hartuta, eta *Zuhaitzak eta totemak* (*Trees and Totems*) lanetan

bizirik gabeko arbolak irudikatu ditu, hau da, moztutako enborrak; azken horren adibide dugu *Neguko enbor mozketa* (*Winter Timber*, 2009), 6 metro baino gehiagoko luzera duena.

Gune horretan ere ikatz-ziriz egindako marrazkiak daude, arbolenak eta “totem”enak. Bizitik egindako zirriborroak dira, eta artistak gai horiek estudioan lantzeko erabili zituen.

“Udaberria heldu da” sorta

Areto irregular eta erraldoi batean *Udaberria heldu da*, *Woldgate, East Yorkshire, 2011 (bi mila eta hamaika)* [*The Arrival of Spring in Woldgate, East Yorkshire in 2011 (twenty-eleven)*] lana dago. Areto osoa hartzen du, eta ikusleak udaberriak sorrarazten dituen emozioak areto osoan barreiatzen direla igartzen du. Naturaren omenaldi bikain hau 32 mihiseko pintura handi batek eta iPad bidez egindako eta paperean inprimatutako 51 marrazkik (pinturaren inguruan daude) osatzen dute.

Negutik udaberri amaiera arteko sasoiaren, Yorkshire-ko bidexka batean, irudikapena da instalazioa, eta operako eszenografiak diseinatzeko emandako urte eta urteen emaitza da neurri handi batean.

Areto honen ondoko guneko Woldgate-ko hiru pinturak buruz, irudimenez, margotu zituen estudioan, bestelako laguntzarik gabe, eta arreta jartzen dute, Hockney-ren hitzetan, motibo “xehe” batean, baina naturaren halako dramatikotasuna darion batean.

Mendiko sermoia

Museoko beste areto ikusgarri bateko horma kurbatueta *Mezu zabalago bat* (*A Bigger Message*, 2010) olio-pintura liluragarria dago, zazpi metro luze baino gehiagokoa. 2009ko abenduan Hockney New Yorkera bidaiatu egin zuen eta bertan, Frick Collection-en egoitza Claude Lorrain (ca. 1604/05–1682) artista frantsesaren *Mendiko sermoia* lana (ca. 1656) ikusi zuen eta guztiz erakargarri egin zitzaion. Ez zion lilurarik eragin Bibliako eszenak, baizik eta Lorrain-ek lortutako espazioaren efektuak. Hartara, konposizioaren tamaina errealeko bertsio bat egitea erabaki zuen eta gerora horren arabera estudio batzuk egin, batzuk jatorrizkoari fidelagoak eta beste batzuk estilatuak.

Proiektuaren emaitza 30 mihiseko lan bat izan zen: *Mezu zabalago bat* (*A Bigger Message*, 2010). *Mendiko sermoia* baino askoz handiagoa izan arren, Lorrain-en konposizio bera dauka. Bere teknika berezia erabiltzean, Hockney-k gaia lan erraldoi bihurtzen du, espazioa irudikatzeko amarrua azpimarratzen duena.

Lorrain-en pinturako paisaia sublimeak piztutako interes horrek berak eraman du Hockney AEBko Yosemite Parke Nazionala gaitzat hartzera. Ezaguna zitzaion ingurune hori, baina Yorkshire-ko paisaian sakondu ondoren ebatzi zuen artelan handiak egiteko gai aproposa zela. iPad gailua erabiltzen lortutako maisutasunari esker, argiaren eta eguratsaren teatraltasuna eta berehalako aldaketak jaso ahal izan ditu, eta, gainera, bere teknika moldatu ahal izan du irudiak handitzeko, behar bezala inprima daitezen, hots, ikusgai dauden moduan. Lan horiek erakusketan dauden berrienak dira.

Zirriborroen koadernoak eta filmak

Erakusketak aukera ematen du artistaren inspirazio-iturri izandakoak aztertzeko, bai eta osagaiok konposizioa egiteko erabilitako modua antzemateko; horretarako daude ikusgai o zirriborroen koadernoak.

Gainera, erakutsi egiten da teknologia berriek ibilbide osoan interesatu zaizkiola Hockney-ri: hasiera batean Polaroid kamera erabili zuen, gero koloretako fotokopiagailua, iPhone telefonoa eta, azkenik, iPad gailua. Interes hori ageria da erakusketan, batez ere, azkenaldiko filmetan. Gehienez 18 kameraz grabatu zituen eta hainbat pantailetan erakusten dira, horrela agerian uzten da pinturak egiteko erabilitako teknikak bideoetan ere baliatu zituela, eta ikuslea murgilarazten da David Hockney-ren begirada jarraitzen duen bidaia batean.

Artistaren inguruan

David Hockney Bradford-en jaio zen 1937an. Bradford School of Art-en ikasi zuen eta, ondoren, 1959tik 1962ra Royal College of Art-en. Azken horretan ikaskide izan zituen Peter Blake eta R.B. Kitaj, eta bertan zela egin zen ezagun: *Young Contemporaries* erakusketan sartu zuten haren lana, hots, Erresuma Batuko pop artea piztu zuen erakusketan. 1960ko hamarkadaren hasieran Los Angeles bisitatu zuen, eta handik gutxira bertan bizitzen jarri zen; oraindik ere, Kaliforniaren hegoaldearekin eta bertan urteetan egindako lan asko eta askorekin lotzen dute. 1991n Royal Academy-ko kide izendatu zuten.

David Hockney: ikuspegi zabalago bat erakusketak agerian jartzen du jakin-minez eta grinaz ekiten diola Hockney-k paisaiak eskainitako aukera ugari margotzeari, eta baliabide teknologiko eta bisualen laguntzaz, bizitik zein buruz edota irudimenez lan egiten duela. Bada, askotariko baliabideetan trebetasun handia du eta irudiak egiteko modu berritzaileen bila dago etengabe, paisaia eta espazioa bizitasun handiz jasotzeko, hots, “ikuspegi zabalago bat” lortzeko. Era berean, nabaria da erakusketan iraganeko maisuak ondo ezagutzen dituela eta harengan eragina izan dutela, eskala paisaiaren ikuspegia zabaltzeko erabileran esaterako. Edonola ere, erakusketak natura eder bati lotzen zaizkion britainiar paisaiagileen tradizioan —Constable horren adibide dugu— kokatzen du Hockney.

David Hockney eta haren sortze prozesua

Erakusketa osatzeko hainbat didaktika gune daude Museoko bigarren solairuan. Bertan David Hockney-ren lan-prozesuaz berri ematen da. Lehen gunean lan-tekniken inguruko testuak eta hezkuntza-materialak daude, alegia, urmargoen, argazkien eta iPad gailuen erabilera jorratzen dituztenak, besteak beste; gainera, hura osatzeko operarako eszenografiak diseinuen adibideak daude (jardun horrek 1970eko hamarkadatik eragin du artistaren artelanetan) eta Bruno Wollheim-ek zuzendutako *A Bigger Picture* ikus-entzunezkoa. Bigarren gunean artistaren eta haren artelanen inguruko bibliografia aukeraketa zabala dago kontsultarako eskuragarri.

Erakusketaren katalogoa

Erakusketa hau dela eta, Museoak 300 orrialdeko katalogoa argitaratu du. Irudi ugari ditu eta Hockney-ren paisaiak aztergai; arreta berezia eskaini zaie Yorkshire-ko landa inguruak inspiratutako lanei. Liburua ibilbide alaia eta bizia da, askotariko baliabideetan jasotako naturaren txokoak ezagutzeko baliagarria. Saiakerak erakusketako komisarioek, hau da, Marco Livingstone-k eta Edith Devaney-k, eta Tim Barringer-ek, Martin Gayford-ek eta Xavier F. Salomon-ek idatzi dituzte, eta artista britainiarrak garatzen dituen espazioa irudikatzeko modu berrietan sakontzen dute.

Azaleko argazkia (xehetasuna):

David Hockney

Udaberria heldu da, Woldgate, East Yorkshire 2011 (bi mila eta hamaika) [*The Arrival of Spring in Woldgate, East Yorkshire in 2011 (twenty eleven)*]

Olio-pintura 32 mihiseren gainean

365,8 x 975,4 cm (91,4 x 121,9 cm bakoitza); 52 laneko sorta batetik

Artistaren eskaintza

© David Hockney

Argazkia: Jonathan Wilkinson

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Arloa

Tel: +34 944 35 90 08

Fax: +34 94 435 90 59

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoaren gaineko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa eremua).

Prentsa irudiak:
David Hockney: ikuspegi zabalago bat
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Guggenheim Bilbao Museoaren FTP zerbitzuan baimena duten hedabideek eskuragarri izango dituzte *David Hockney: ikuspegi zabalago bat* erakusketaren prentsarako irudiak (bereizmen handian).

Irudiak dauden FTP zerbitzura sartu ahal izateko beharrezkoa da honako webgune honetan izena ematea: http://www.guggenheim-bilbao.es/secciones/area_de_prensa/registro.php?idioma=eu

Behin izena eman duzuela, posta elektroniko bidez helaraziko zaizkizue FTP zerbitzuaren helbidea eta bertan sartzeko erabiltzaile-izena eta pasahitzak. Zerbitzu horretan prentsarako argazki guztiak, horien oinak eta kredituak eta irudiak erabiltzeko baldintzak daude.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

David Hockney: ikuspegi zabalago bat

Erakusketa Londresko Royal Academy of Arts-ek antolatu du Guggenheim Bilbao Museoarekin eta Koloniako Museum Ludwig-ekin lankidetzan

1. David Hockney

Pintura arrunta (Ordinary Picture), 1964

Akrilikoa mihise gainean


182,9 x 182,9 cm

Hirshhorn Museum and Sculpture Garden, Smithsonian Institution, Washington

Joseph H. Hirshhorn-en dohaintza, 1966

© David Hockney

Argazkia: Prudence Cuming Associates



2. David Hockney

Pearblossom autobidea, 1986ko apirilaren 11tik 18ra 1 zk. (Pearblossom Highway, 11-18 April 1986 #1)

Argazki-collagea

119,4 x 163,8 cm

The J. Paul Getty Museum, Los Angeles

David Hockney-ren dohaintza

© David Hockney

Argazkia: Prudence Cuming Associates



3. David Hockney

The Wolds zeharkatzen duen errepidea (The Road across the Wolds), 1997

Olio-pintura mihise gainean

121,9 x 152,4 cm

Mrs Margaret Silver

© David Hockney

Argazkia: Prudence Cuming Associates



4. David Hockney

Neguko tunela hurbiletik, otsaila-martxoa (A Closer Winter Tunnel, February–March), 2006

Olio-pintura sei mihiseren gainean

182,9 x 365,8 cm (91,4 x 121,9 cm bakoitza)

Art Gallery of New South Wales, Sydney

Honako hauen funtsei esker eskuratua: Geoff eta Vicki Ainsworth, Florence eta William Crosby-ren legatua eta Art Gallery of New South Wales

Foundation, 2007

© David Hockney / Collection of Art Gallery of New South Wales, Sydney

Argazkia: Richard Schmidt



5. David Hockney

Neguko tunela, elurtua, martxoa (Winter Tunnel with Snow, March), 2006

Olio-pintura mihise gainean

91,4 x 121,9 cm

Artistaren eskaintza

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



6. David Hockney

Woldgate basoa, 2006ko azaroaren 21a, 23a eta 29a (Woldgate Woods, 21, 23 and 29 November 2006)

Olio-pintura sei mihiseren gainean

182,9 x 365,8 cm (91,4 x 121,9 cm bakoitza)

Artistaren eskaintza

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



7. David Hockney

Elorri zuri handia (The Big Hawthorn), 2008


Olio-pintura bederatzi mihiseren gainean

274,3 x 365,8 cm (91,4 x 121,9 cm bakoitza)

Artistaren eskaintza

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



8. David Hockney

Neguko enbor-mozketa (Winter Timber), 2009

Olio-pintura hamabost mihiseren gainean

274,3 x 609,6 cm (91,4 x 121,9 cm bakoitza)

Bilduma pribatua

© David Hockney

Argazkia: Jonathan Wilkinson



9. David Hockney

Mendiko sermoia II (Claude Lorraine-n arabera) [The Sermon on the Mount II (After Claude)], 2010

Olio-pintura mihise gainean

171,5 x 259,7 cm

Artistaren eskaintza

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



10. David Hockney

Zuhaitz pean, handiagoa (Under the Trees, Bigger), 2010–11

Olio-pintura hogei mihiseren gainean

365,8 x 609,6 cm, (91,4 x 121,9 cm bakoitza)

Artistaren eskaintza

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



11. David Hockney

Udaberria heldu da, Woldgate, East Yorkshire 2011 (bi mila eta hamaika)

[*The Arrival of Spring in Woldgate, East Yorkshire in 2011 (twenty eleven)*]

Olio-pintura 32 mihiseren gainean

365,8 x 975,4 cm (91,4 x 121,9 cm bakoitza); 52 laneko sorta batetik

Artistaren eskaintza

© David Hockney

Argazkia: Jonathan Wilkinson



12. David Hockney

Udaberria heldu da, Woldgate, East Yorkshire 2011 (bi mila eta hamaika) –

urtarrilaren 2a [The Arrival of Spring in Woldgate, East Yorkshire in 2011 (twenty eleven) – 2 January]

iPad bidez egindako marrazkia, paperean inprimatua

144,1 x 108 cm; 52 laneko sorta batetik

Artistaren eskaintza

© David Hockney



13. David Hockney

Udaberria heldu da, Woldgate, East Yorkshire 2011 (bi mila eta hamaika) – apirilaren 12a, 1.a [The Arrival of Spring in Woldgate, East Yorkshire in 2011 (twenty eleven) – 12 April] N. 1

iPad bidez egindako marrazkia, paperean inprimatua

144,1 x 108 cm; 52 laneko sorta batetik

Artistaren eskaintza

© David Hockney



14. David Hockney

2010eko azaroaren 7a, azaroaren 26a, Woldgate basoa, 11:30 eta 09:30 (Nov. 7th, Nov. 26th 2010, Woldgate Woods, 11.30 am and 9.30 am)

Bideo digital baten fotograma

Artistaren eskaintza

© David Hockney



ARTISTAREN ARGAZKIAK

David Hockney, Bridlington Studio, 2009ko otsaila

© David Hockney

Argazkia: Gregory Evans



David Hockney bederatzi kamara zuzentzen, 2010eko apirila

© David Hockney

Argazkia: Jean-Pierre Gonçalves de Lima



David Hockney, 2010ko apirila

© David Hockney

Argazkia: Jean-Pierre Gonçalves de Lima



David Hockney *Neguko enbor-moztea* margotzen Bridlington-en, 2009ko uztaila (xehetasuna)


© David Hockney

Argazkia: Jean-Pierre Gonçalves de Lima



© David Hockney

Foto: Jean-Pierre Gonçalves de Lima



JARDUERA OSAGARRIAK

DAVID HOCKNEY: IKUSPEGI ZABALAGO BAT

Hitzaldia: David Hockney-ren Yorkshire-ko paisaiei sarrera

Maiatzak 15

Edith Devaney-k, Londresko Royal Academy-ko arte arduraduna eta komisarioetako batek, erakusketaren ikuspegi orokorra emango du, eta paisaietan britainiar artistak landutako gaiak eta jaioterri Yorkshire-rako itzulera aztertuko du. Artistaren lan egiteko moduaz eta ibilbide osoko teknologiaren erabileraz ere mintzatuko da. Halaber, erakusketa nola sortu zen eta nola taxutu den azalduko du.

Doako jarduera. Aldi bereko interpretazioa gaztelaniara.

Lekua eta ordua: Zero Espazioa. 18:30

iPad-en sortzeko ikastaroa: hastapenak

Maiatzak 22 eta 29 eta ekainak 8 eta 12

David Hockney: ikuspegi zabalago bat erakusketa dela eta, sormenezko lanak egiteko eta entretenitzeko, iPad gailuak hainbat ezaugarri eta aukera apropos dituela erakutsiko duen ikastaroa antolatu du Museoak. Publiko orokorrarentzat da, Oscar López Martínek zuzenduko du, eta ezinbestekoa da parte-hartzaile bakoitzak iPad gailua ekartzea.

Egitaraua:

Maiatzak 22: sarrera orokorra

Maiatzak 29: argazkigintzarako eta marrazketarako erabilerak

Ekainak 8: bideorako erabilerak

Ekainak 12: edizioan Penultimate eta Keynote programetan

Lekua eta ordua: Hezkuntza gela, 19:00–20:00

Irakaslea: Óscar López Martín

Partekatutako hausnarketak

Museoko Arte Ardura eta Hezkuntza Arloko profesionalek erakusketa ikusteko bestelako modu bat azalduko dute.

Arte Ardura Arloaren ikuspegia

Maiatzak 30, 18:30

Lucía Agirre, Arte Ardura Arloaren Zuzendariordea

Funtsezko kontzeptuak

Ekainak 6, 18:30

Luz Maguregui, Hezkuntza Arloko Koordinatzailea

Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre